



# Unitate Didaktikoa

Ikasgai kurrikularretan aplikatzekoa

ZERUERTZ. HEZKUNTA ETA SENTSIBILIZAZIO INTERKULTURALA DBHKO IKASLEENTZAT

## Atzerriko Hizkuntza

01. Datu orokorrak
02. Funtsezko konpetentziak, konpetentzia espezifikoak, ebaluazio irizpideak eta oinarriko jakintzak.
03. Jardueraren deskribapena
04. Baliabideak eta materialak



ZERUERTZ



# Datu orokorrak

**TITULUA:** Kultur aniztasuna

**ETAPA:** Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

**ZIKLOA:** 3. zikloa

**DENBORALIZAZIOA:** Jarduera hau egiteko, ikasgelan 2 lan-saio egin behar direla uste da (1. Zereginaren sarrera eta prestaketa; 2. Bateratze-lana eta talde hausnarketa). Horri gehitu beharko zaio ikasgelatik kanpo elkarriketa planifikatzeko, egiteko eta transkribatzeko behar den denbora, ikasleek beraiek balioetsitako premien arabera zehaztuko dena.

Jarduera hau ikasturtean zehar egin daiteke, gai horri esleitutako beste zeregin batzuekin batera.

## JARDUERAREN DESKRIBAPENA ETA EDUKIAK

- Kultur-aniztasunari buruzko esplorazioa.
- Pertsona migratuei kulturarteko aniztasuna eta bizikidetzari buruzko elkarriketak egitea.
- Kulturartekotasunari, migrazio-prozesuei eta kulturarteko bizikidetzari buruzko hausnarketa.

## HELBURUAK

- Kultur-aniztasuna ezagutzea eta balioestea.
- Pertsona migratu bati elkarriketa bat egitea, kulturartekotasuna aztertzeke.
- Pertsona migratuekiko eta haien kulturekiko enpatia sustatzea.
- Komunitateetako kultura-aniztasunaren funtsari eta horrek identitate kolektiboan duen eraginari buruz, hausnartzea.

ZERUERTZ



# Funtsezko konpetentziak, konpetentzia espezifikoak, ebaluazio irizpideak eta oinarrizko jakintzak

## FUNTZESKO KONPETENTZIAK

- Hizkuntza Komunikaziorako Konpetentzia (HKK)
- Eleaniztasunerako Konpetentzia (EK)
- Konpetentzia Pertsonala, Soziala eta Ikasten Ikastekoa (KPSII)
- Konpetentzia Digitala (KD)
- Herritar Konpetentzia (HK)
- Ekimenerako Konpetentzia (EK)
- Kulturaren Kontzientzia eta Adierazpenerako Konpetentzia (KKAK)

## KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK ETA EBALUAZIO IRIZPIDEAK

**2.KONP.ESPE.:** Jatorrizko testuak sortzea, luzera ertainekoak, errazak eta antolamendu egokikoak, hainbat estrategia erabilita, hala nola plangintza, konpentsazioa edo autozuzenketa, mezu esanguratsuak sormenez, egokitasunez eta koherentziaz adierazteko eta komunikazio asmo zehatzei erantzuteko.

**2.1.EBALU.IRIZP.:** Oinarrizko estrategiak ulertzea, testu erraz, egituratu, ulergarri eta koherenteak, eta komunikazio egoerara egokituak ahoz adierazteko; testuen gaiak dira egunerokoak, ikasleentzat garrantzitsuak direnak, edo interes publikokoak izanik beren esperientziatik hurbil daudenak, eta helburua, berriz, deskribatu, kontatu, argudiatu eta informatzea hainbat euskarritan, erabiliz bai hitzezko baliabideak eta hitzezkoak ez direnak, bai plangintza, kontrol, konpentsazio eta lankidetzako estrategiak.

**2.2.EBALU.IRIZP.:** Luzera ertainekoak diren eta gramatika aldetik errazak diren testuak idatzi eta hedatzea, argitasun, koherentzia, kohesio, zuzentasun nahikoa dutenak, eta proposatutako komunikazio egoerara eta testu tipologiara egokituak eta erabilitako tresna analogiko eta digitalen arabekoak; testu horien gaiak dira egunerokoak, ikasleentzat garrantzitsuak direnak, edo interes publikokoak izanik beren esperientziatik hurbil daudenak; jabetza intelektualaren errespetatu behar da, eta plagioa saihestu.

**2.3.EBALU.IRIZP.:** Ezagutzak eta estrategiak gidatuta hautatu, antolatu eta aplikatzea testu ulergarri eta koherenteak planifikatu, sortu eta berrikusteko; testu horiek dira komunikazio asmoetara, testuinguruaren ezaugarrietara eta testu tipologiara egokitutakoak; horretarako,

lagunduta erabiltzen dira baliabide fisiko edo digitalik egokienak, une bakoitzeko zereginaren eta beharren arabera, testuaren hartzailea nor den aintzat hartuta.

**3.KONP.ESPE.:** Beste pertsona batzuekin interakzioan aritzea gero eta autonomia handiagoarekin, lankidetzaz estrategiak baliatuz eta baliabide analogikoak eta digitalak erabiliz, kortesia arauak errespetatzen dituzten trukeetan komunikazio helburu zehatzei erantzuteko.

**3.1.EBALU.IRIZP.:** Modu aktiboan parte hartu eta lankidetzan aritzea, hainbat euskarri baliatuz, egoera interaktibo errazetan. Gaiak izanen dira egunerokoak, ikasleentzat garrantzitsuak direnak, edo interes publikokoak izanik bere esperientziatik hurbil daudenak; eta enpatia nahiz errespetua erakusten dira hizkuntza kortesiarekiko eta etiketa digitalarekiko; bai eta solaskideen behar, ideia, kezka, ekimen eta motibazioekiko ere.

**3.2.EBALU.IRIZP.:** Estrategia egokiak erabiltzea, komunikazioa hasi, mantendu eta bukatzeko, hitza hartu eta emateko, arazoak ebatzeko eta egoera konprometituak kudeatzeko.

**4.KONP.ESPE.:** Hizkuntzen arteko eguneroko egoeretan bitartekotza lanak egitea, kontzeptuak azaltzeko edo mezuak errazteko estrategia eta ezagutza errazak erabiliz, informazioa eraginkortasunez, argiro eta arduraz transmititzeko.

**4.1.EBALU.IRIZP.:** Kontzeptu eta komunikazio erraz eta laburrak ulertzea, aniztasuna zaindu behar den egoeretan, solaskideekiko eta erabilitako hizkuntzekiko errespetua eta enpatia erakutsiz, eta ingurune hurbilean ulertzeko eta elkar ulertzeko arazoak konpontzen parte hartzeko interesa agertzea.

**4.2.EBALU.IRIZP.:** Estrategiak aplikatzea zubiak sortzen laguntzeko, komunikazioa errazteko eta testu, kontzeptu eta mezuen esanahi orokorra inferitzeko, baliabide edo euskarri fisikoak edo digitalak erabiliz, une bakoitzean dauden beharren arabera; estrategia horiek egokituta daude komunikazio asmoetara eta testuinguruaren ezaugarrietara.

**6.KONP.ESPE.:** Aniztasun linguistiko, kultural eta artistikoa kritikoki balioestea eta hartara egokitzea atzerriko hizkuntzatik abiatuta, hizkuntzen eta kulturen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak identifikatuz eta partekatuz, enpatiaz eta errespetuz jokatzeko kulturarteko egoeretan.

**6.1.EBALU.IRIZP.:** Egokiro, enpatiaz eta errespetuz jardutea kulturarteko egoeretan, loturak eraikiz hizkuntzen eta kulturen artean, eguneroko komunikazio testuinguruetan baztertuz diskriminazio, aurreiritzi eta estereotipo guztiak, eta hautemanez komunikazioa zailtzen duten faktore soziokulturalak konpontzeko bideak.

**6.2.EBALU.IRIZP.:** Atzerriko hizkuntza mintzatzen den herrialdeen berezko aniztasun linguistiko, kultural eta artistikoa kritikoki baloratzea, kultura partekatua eta jasangarritasunarekin eta balio demokratikoekin konprometitutako herritarrak garatzea bultzatuz.

**6.3.EBALU.IRIZP.:** Aniztasun linguistiko, cultural eta artistikoa balioesteko estrategiak aplikatzea.

## **OINARRIZKO JAKINTZAK**

### **A. KOMUNIKAZIOA**

**A.2.** Ohiko estrategiak, honako alderdi hauek planifikatu, gauzatu, kontrolatu eta konpontzeko: ahozko testuen, idatzizkoen eta multimodalen ulermena, produkzioa eta koprodukzioa.

**A.4.** Ohiko funtzio komunikatiboak, komunikazioaren eremuari eta testuinguruari egokitutakoak: elkartzerakoan eta alde egiterakoan agurtzea, norbait aurkeztea eta nork bere burua aurkeztea; pertsonak, objektuak, tokiak, fenomenoak eta gertaerak eta haien ezaugarriak deskribatzea; gertaerak denboran kokatzea; objektuak, pertsonak eta lekuak espazioan kokatzea; eguneroko gaien buruzko informazioa eskatu eta trukitzea; jarraibideak eta aginduak eman eta eskatzea; laguntza, proposamenak edo iradokizunak eskaini, onartu eta baztertzea; gustua edo interesa eta emozioak hein batean adieraztea; iraganeko gertaerak kontatu, egungo egoerak deskribatu eta etorkizuneko egoerak aipatzea; iritzia eta posibilitatea adieraztea; argudio errazak adieraztea; hipotesiak eta usteak adieraztea; posibilitatea, ziurgabetasuna eta zalantza agertzea; birformulatu eta laburtzea.

**A.7.** Ohiko erabilerakoa den eta ikaslearendako interesgarria den lexikoa, hainbat alorretakoa: pertsonaren identifikazioa, pertsonen arteko harremanak, tokiak eta inguruneak, aisialdia, osasuna eta jarduera fisikoa, eguneroko bizitza, etxebizitza eta etxea, klima eta ingurune naturala, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, eskola sistema eta prestakuntza.

**A.8.** Ohiko erabilerako soinu, azentu, erritmo eta intonazio patroiak, eta patroiei lotutako esanahi eta komunikazio asmo orokorrak.

**A.10.** Ohiko erabilerako elkarrizketako konbentzio eta estrategiak, formato sinkronoan edo asinkronoan, komunikazioa hasi, mantendu eta bukatzeko, hitza hartu eta emateko, azalpenak eskatu eta emateko, birformulatzeko, alderatzeko, kontrastatzeko, laburtzeko, lankidetzan aritzeko, eztabaidatzeko eta abar.

**A.13.** Erabilera komuneko tresna analogiko eta digitalak, erabiltzen direnak ahazko testuak, idatzizkoak nahiz multimodalak ulertu, sortu eta elkarrekin sortzeko; eta hezkuntza arloko interakzio eta lankidetzarako plataforma birtualak (ikasgela birtualak, bideokonferentziak, lankidetzako tresna digitalak...) ikasteko, komunikatzeko eta euskararen hiztun edo ikasleekin proiektuak garatzeko direnak.

### **B. ELEANIZTASUNA**

**B.1.** Estrategiak eta teknikak izatea behar komunikatibo zehatz baten aitzinean eraginkortasunez erantzuteko, gero eta jario, egokitasun eta zuzentasun handiagoz, nahiz eta muga batzuk egon ikasleak

atzerriko hizkuntzan eta bere hizkuntza-errepertorioko beste hizkuntzetan daukan konpetentzia-mailaren ondorioz.

**B.4.** Ohiko erabilerako esapideak eta lexiko espezifikoak, erabiltzen direnak komunikazioari, hizkuntzari, ikaskuntzari, eta komunikazioko nahiz ikaskuntzako tresnei buruzko ideiak trukatzeko (metahizkuntza).

**B.5.** Hizkuntzen arteko konparazioa, atzerriko hizkuntzaren eta beste hizkuntza batzuen elementuetatik abiatuta (jatorria eta ahaidetasunak).

### C. KULTURARTEKOTASUNA

**C.1.** Atzerriko hizkuntza: pertsonen artean eta nazioartean komunikatzeko bidea, informazio iturria, eta gizartean parte hartzeko eta nork bere burua aberasteko tresna.

**C.3.** Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeetan berezkoak dituzten alderdi soziokulturalak eta soziolinguistikoak, eguneroko bizitzari, bizi-baldintzei eta pertsonen arteko harremanei buruzkoak; ohiko konbentzio sozialak; hitzezkoa ez den hizkuntza, hizkuntza kortesia eta etiketa digitala; kultura, arauak, jarrerak, ohiturak eta balioak.

**C.4.** Ohiko erabilerako estrategiak izatea aniztasun linguistiko, kultural eta artistikoa ulertu eta balioesteko, balio ekosozial eta demokratikoak aintzat hartuta.

**C.5.** Ohiko erabilerako estrategiak, hitzezko hizkuntzan eta hitzezkoa ez den hizkuntzan egiten diren erabilera diskriminatzaileak hautemateko eta horiei aurre egiteko.

ZERUERTZ



# Jardueraren deskribapena

## 1. FASEA. SARRERA (IRAKASLEEN ALDETIK)

Migrazioaren gaia aurkeztea, eta ikasleak motibatzea kultura-aniztasunaren garrantziaz hausnartzera.

- Horretarako, irakasleak *DBHko ikasleekin kulturartean hezteko eta sentsibilizatzeko gida didaktikoan* oinarritu ahal izango dira ezagutza transferitzeko. Gida hori Zeruertz-eko taldeak egin zuen, ele bitan (gaztelaniaz eta euskaraz), 2022ko edizioan.

## 2. FASEA. IKASLEAK ELKARRIZKETARAKO PRESTATZEA

Fase honetan, irakasleek egin beharreko jarduera sartu beharko diete ikasleei; hau da, elkarrizketa bat egin beharko diete migratutako pertsonari. Ikasleek inguruko pertsona migratu bat elkarrizketatu beharko dute, guri dagokigun gaiari buruz, kultura- eta hizkuntza-aniztasunari buruz.

Elkarrizketa prestatzeko eta munduko herrialdeetan dagoen kultura-aniztasunari buruzko testuinguru teoriko bat sortzeko, ikasleek kultura- eta hizkuntza-aniztasunari buruz ikertu beharko dute hainbat herrialdetan, oro har, eta elkarrizketatutako pertsona migratuaren jatorrizko herrialdean, bereziki.

Ekintza horrek aukera emango dio ikasleari irekitasun-posizio batean jartzeko, jakin-min-egoera bat sustatzeko, hurrengo zeregina errazteko, hau da, elkarrizketan adierazitako galderak egiteko.

## 3. FASEA. ELKARRIZKETA PERSONA MIGRATU BATI

Eskuratutako ezagutzatik abiatuta, ikasleek galdera-gidoi bat prestatu beharko dute elkarrizketa zuzentzeko. Aurkezpenaz, migratutako pertsonaren sarrera gisa, eta agurraz gain, elkarrizketatuari egindako ekarpena eskertzeko, elkarrizketaren gorputzean kulturartekotasunarekin eta hizkuntzekin lotutako galderak izango dira.

Ondoren, elkarrizketa hau egiteko laguntza eta adibide gisa, galderen zerrenda bat eskaintzen da [1. eranskinean](#), ikasleek, edozein ikasturtetan daudela ere, beren interesa eta lehentasuna kontuan hartuta, elkarrizketa gidatzeko orientabide bat aukeratu ahal izan dezaten.

## 4. FASEA. ELKARRIZKETAREN TRANSKRIPZIOA ETA HAUSNARKETA-EZTABAIDA IKASGELAN

Elkarrizketa egin ondoren, hau, ikasgaian landutako hizkuntzan transkribatuko da, atazari buruzko ebaluazioa ahalbidetzeko.

Era berean, interesgarria izan liteke ikasgelan espazio bat bilatzea, esperientzia horien eta ikasleen arteko elkarrizketen ondoriozko pertzepzioen trukea sustatzeko, talde-eztabaida baten bitartez. Espazio honetan kulturartekotasunari eta hizkuntzei buruz, bai eta horrek gizartean, oro har, eta nortasun pertsonalean, bereziki, duen eraginari buruz ere; era berean, jarduera hori gauzatzeak ikasleengan izan duen eragina landuko da.

Z E R U E R T Z



---

# Baliabideak eta materialak

## BEHARREZKO BALIAKIDEAK

- Interneterako sarbidea eta ikerketa-materiala (irakasleek baloratu beharrekoa).
- Elkarriketak grabatzeko gailu elektronikoa, beharrezkoa bada, elkarriketaren transkripzioa errazteko.

## IRAKASLEENTZAKO MATERIAL GEHIGARRIAK

- [Aula Intercultural](#)
- [Ministerio de Educación y Formación Profesional](#)

ZERUERTZ

---



# 1. eranskina. Eredugaldere zerrenda

1. Zein herrialdeetatik zatoz eta zer gustatzen zaizu gehien zure kulturatik?
2. Zure kulturaren zein alderdi dira zailenak beste pertsona batzuekin partekatzeko?
3. Zer erronka edo onura izan dituzu kulturalki desberdina den ingurune batean bizitzean edo lan egitean?
4. Zure ustez, zure kulturako zer balio, sinesmen edo praktika dira garrantzitsuenak edo esanguratsuenak zuretzat?
5. Zer estereotipo edo aurreiritzi gainditu dituzu zure jatorri kulturalagatik?
6. Zer ikasi edo gustoko izan duzu ezagutu dituzun beste kultura batzuetatik?
7. Zer aholku emango zenioke zure kultura hobeto ezagutu edo integratu nahi duen norbaiti?
8. Zure kulturako zer jarduera, ekitaldi edo ospakizun partekatu nahiko zenituzke beste pertsona batzuekin?
9. Zure kulturaren zer alderdi zaindu edo transmititu nahi diezu hurrengo belaunaldiei?
10. Zure kulturaren zer alderdi aldatu edo hobetu nahiko zenituzke?
11. Nola definitzen dituzu kultura-aniztasuna eta kulturartekotasuna, eta zer garrantzi dute zuretzat?
12. Zure ustez, zer trebetasun, jarrera edo portaera behar dira kulturaren arteko bizikidetzaren errespetuzkoa izateko?
13. Zer esperientzia, proiektu edo ekimenetan parte hartu duzu, edo ezagutzen dituzu, kultura-aniztasuna eta kulturartekotasuna sustatzen dutenak?
14. Zure ustez zer erronka eta aukera daude, zure komunitatean, herrialdean edo munduan kultura-aniztasuna eta kulturartekotasuna sustatzeko?
15. Zer amets edo helburu bete nahiko zenituzke kultura-aniztasunarekin eta kulturartekotasunarekin lotuta?

ZERUERTZ

